

Iritzia

Behatokia

Miren Azkarate



Munduko Autonomia Estatuturik onena

Autogobernua ez da ariketa teoriko hutsa; beharrezkoa dugu, eta beharrezkoa da, baita, horretan sakontzea. Baina eskumenen etengabeko erasana ikusten ari gara

ZENBAT bider ez ote dugu entzun inon den autonomia estatuturik aurreratuen dugula; ez dela munduan gure estatutuak baino eskumen gehiago aitorzen dizkionik dagokion komunitari. Horixe esan digute, aurpegiatu ere bai ia-ia, autodeterminazio eskubideaz jardun dugunean: herrialde kolonizatuak dagoen autodeterminazioa, ez maila horretako autonomia duenari. Horixe esan digute Eskoziak kontsultarako bidea egin duen denbora guztian: guk adinako autonomia izan balute, ez ziren behingoan abiatuko bide horretatik; are gutxiago, guk bezala, Kontzertu Ekonomikoa izan balute. Ez naiz zientzia politikan aditua, ez naiz zuzenbidean aditua; ez ditut ezagutzen beste leku batzuetako autonomia estatutuak (edo horien pareko legeria); ezagututa ere, ez naiz gai batzuen eta besteen azterketa zentzuzkoa egiteko. Horrek esan nahi du, jakina, ez dela nire asmoa gure Autonomia Estatutuaren azterketa juridikoa egitea. Estatutuan jasotakoa eta azken hilabeteetan irakurtzen dudana jarri nahi ditut parez pare, ez munduko estatuturik aurreratuen dugun jakiteko, 1979an onartutakoa betetzen den jakiteko, besterik gabe. Izan ere, harritzekoa da jakitea une honetan 26 kasu-

tan ditugula gatazkak autogobernari dagozkion auzietan, eta Eusko Jaurilaritzak 9 helegite dituela jarriak Konstituzio Auzitegian akordioak ez delako izan, edo negoziazioa bera ere ez delako onartu. Nola liteke horrela ibiltzea horrenbestarainokoa baldin bada dugun autonomia-maila? Ikus dezagun zer dioten Gernikako Estatutuak eta zertan garen benetan.

"Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazgarri, eta bere burujabetasuna iristeko, espainol Estatuaren barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen da" dio lehen artikulua 9. artikuluan, berriz, hauxe dio b) eta c) puntuetan: euskal botere publikoek "bizitzeko eta lan egiteko kondizioen hobekuntza ekar dezakeen politika bultzatuko dute bereziki" eta "enpleguaren gehikuntza eta ekonomia-eragonekin sustatzen lagun dezaketen neurriak hartuko dituzte".

Hori hala izan dadin, Euskadiri eta berari bakarrik dagozkion eskumenak zehazten dira 10. artikulutik aurrera; eskumen eskusiboak, alegia. Ez hori bakarrik; askotan oroitarazten digute Konstituzioa duela iturburu eta oinarri Estatutuak; bada, Konstituzio horrek berak dio lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dituela. Hau da, jakina den bezala, lurralde forudun garen heinean, baditugu eskubide historikoak, Konstituzioaren aurrekoak direnak. Eta, Autonomia Estatutuak dienez, testu horrek ezartzen zuen autonomia onartzeak ez du esan nahi herri gisa historian barrena dagozkion eskubideei uko egiten diegunik. Horrela ikusita badirudi benetan dugula munduko autonomiarik handiena.

Baina... aste honetan bertan jakin dugu helegite jarriko duela Eusko Jaurilaritzak turismo handiko eremuak saltokietako ordutegiak erabat liberalizatzeko legearen aurka. Zergatik? Espainiako estatutuak erabakitako irizpide eta baldintzak ezartzen dituelako, turismo handiko eremuak zehazteko dugun gaitasuna kontuan hartu gabe. Baina... botiken berrordainketa, kopagoa, ezarri behar izan dugu Espainiako gobernuak legez hala behartuta, nahiz Estatutuaren arabera gai horri buruzko legeak egiteko eskumena izan Euskadik. Pikutara Farmazia antolaketaz Estatutuak dioena.

Eusko Jaurilaritzaren eskumen eskusiboa da Erregimen lokala eta Euskadiko eta bertako Administrazio Lokaleko funtzionarioen Estatutua. Baina... hemengo funtzionarioek ezin izan zuten 2012an Gabonetako paga jaso, Espainiako gobernuak hala erabaki zuelako. Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko

Erakundeak (EPSVak) genituen antolatuak geure eskumenen barruan eta urteak generamatzan hor jarritako diruak hamar urteren buruan berreskuratu genitzaakeela. Legea ere onartu zuen Eusko Jaurilaritzak 2012an. Baina... Konstituzio Auzitegiak baliogabe utzi ditu lege horren 8 artikulutako hainbat atal, Espainiako Estatuaren pensio-plan eta funtsei buruzko oinarriko arauditik aldentzen delako. Pikutara gizarte-aurreikuspeneko euskal araudia. Euskal Herriko Estatistika ere gure eskumen eskusiboa da, baita Euskal Herriko Meteorologia Zerbitzua ere. Baina... Eustat eta Euskalmet desagerrarazi beharko genituzke, desegin. Beste horrenbeste dagokio Arartekoari ere, edo Kontu Epaitegi Publikoaren Tribunalari, Datuen Babeserako Euskal Agentziari, Prospekzio Soziologikoen Kabineteari, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari (Unibasq) zein Energiaren Euskal Erakundeari (EVE). Hauen guztien funtzioak Madrilera zuzenean egitea nahi dute, edo, behintzat, handik koordinatzea. Bikoiztasuna sortzen omen dute Espainiako Administrazio Orokorrekin. Nahikoa ditugu Espainiako erakunde eta agentziak. Eskumen eskusiboa dugu hezkuntzan ere; kasu honetan, gainera, ez Estatututik sortua, baizik Konstituzioaren Xedapen gehigarritik datorrena, forudun lurraldeen eskubide historikotik, alegia. Baina... Lomce besterik ez dugu entzuten azken ia bi urte hauetan irakaskuntzaren munduan. Ustez Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko den lege horrek, gurean aspaldi gaitzituak ditugun helburuak ezarri dizkigu. Derrigorrezko Bigarren

Egoera nola dagoen ikusita, inoiz baino beharrezkoago zaigu eskumenak izatea, krisiari aurre egiteko neurri ekonomikoak hartzeko eskumen zabalak

Hezkuntzan eta Batxillergoan ikasleei egingo zaien kanpo-ebaluziorako irizpideak Espainiako Gobernuak ezarriko ditu. Irakasgaien edukia ere Espainiako Gobernuak ezarriko ditu. Akabo "irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kompetentziaren" egotea.

Nola liteke hori guztia gertatzea? Letra txikiak du errua. Badakizue kontratu, itun, dokumentu... guztietan (ia guztietan) izaten dela letra txikia, amaieran ageri dena eta askotan arretaz irakurtzen ez duguna. Gernikako Estatutuak ere badu bere letra txikiak. Hezkuntza arautzen duen 16. artikuluan kasuan, esaterako, "Konstituzioaren 27. artikuluan eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektzioari kalterik egiteko". Beste batzuetan, "Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan jartzen denari kalterik egiteko"; edo "Konstituzioaren 149.1.23 artikuluari kalterik egiteko"; "Hori guztia, Konstituzioaren 149.1.25 artikuluari kalterik egiteko"...

Hitz batean, 1839an Foruak "bertetsi" zireneko "sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía" hura bera XXI. mendera ekarria.

Inoiz baino beharrezkoago zaigu kalitatezko hezkuntzaren bidetik jarraitzeko eskumenak izatea, kalitatezko osasun sistemari eutsi eta garatzeko eskumenak izatea, krisiari aurre egiteko neurri ekonomikoak hartzeko eskumenak izatea, enpresei lehia-ko izaten laguntzeko eskumenak izatea; ikerikuntza, garapen eta berrikuntzaren bidean aurrera egiteko eskumenak izatea... Hau da, Gernikako Estatuaren 9. artikulua dioena bermatzea. Autogobernua ez baita ariketa teoriko hutsa, batzuen ameskeria, geroko utzi beharrezkoa. Autogobernua ekarri gaitu gauden lekura; eta beharrezkoa dugu autogobernua, eta autogobernua sakontzea, gauden egoeratik irteteko bideak lantzeko. Horren ordez, eskumenen etengabeko erasana ikusten ari gara; nabarmena de birzentralizazioan aurrera garamatzen bidea. Argi dago Espainiako Gobernuak ez duela benetan Autonomia Erkidegoen sistemari sinesten. Javier Elizko berrikitzen esan duen bezala, Espainia prest dago eskumenak eta subiranotasuna Europaren esku uzteko, baina ez barruan dituen nazionalitateen esku. Baina zuek lasai; munduko estatuturik aurreratuen, onena dugu-eta.

* Donostiako udalaren EAJ/PNVko zinegotzia

VISPRING

Luxury Beds - London 1901

LONDON - NEW-YORK - PARIS - MILAN - BERLIN - MOSCOW - BEIJING - HONG KONG

COLCHONERIA MILUNA
(VISPRING BILBAO)

CITA PREVIA: SÁBADOS TARDE
627 430 219

C/ Henao n.18 esquina C/Ercilla
48009 Bilbao
www.milunabilbao.es
946 947 693

www.vispring.es

